

Goñerrin aurkitutako sei euskal testu

(1743-1753)

FRANTZISKO ONDARRA*

Gure ustez argitaratu gabe dauden sei euskal testu ematen ditugu eza-gutzera. Goñerriko Munarritz herrian izan ziren aurkituak 1921. urtean, eta 12/13 eskuk idatzitako 55 testuk osatzen duten bilduma baten lehenengo zatia dira. Guzti horien berri labur bat eman zen Euskaltzaindia-ren agerkaria den Euskeran, 1981. urtean, 349-365 eta 633-649 orrialdeetan.

TESTUAK

Testu bakoitza lau orriko paper multzotxo batean dago idatzia, baina gehienetan idazleak ez ditu bete orrialde guztiak. Orrialdeak zenbatu gabe daude. Horien neurriak hauek dira: 1. eta 2. testuetako papera 210 mm. luze eta 154 zabal da; 3.ekoak, 206 eta 145; 4.enekoak, 202 eta 144; 5.enekoak, 210 eta 155; 6.enekoak, 206 eta 151.

Papergile *ur markak* asko dira. Hona hemen:

1. Hiru zirkulu bata bestearen gainean eta goiko zirkuluaren gainean hiru gurutze. Marka hau 1., 2., 5. eta 6. testuetan ageri da.
2. Lehengo eta bostgarren testuetan LB ikusten dugu.
3. Seigarren testuan berriz, PB (sic P-).
4. Hiru zirkulu, gurutze bat eta koroa bat, denak bata bestearen gainean kokatuak; eta goiko zirkulu eta gurutzearen ezker-eskuin, esku (?) antzeko marrazkiak. Dena, 3. testuan.
5. Aurreko testuan bertan, hiru lerrotan: BEARN / I MONTAVBAN / LAINEZ (?)
6. Hiru zirkulu, gurutze bat eta koroa bat lili-horiztatua, bata bestearen gainean. Goiko zirkulu eta gurutzearen ezker-eskuin, esku (?) antzeko marrazkiak; eta erdiko zirkuluaren ezker-eskuin: FIN eta 1730 (?). Horiek denak, 4. testuan.
7. Bi lerrotan ezarririk: I FARGVES / NAVARRE. Hau ere 4. testuan.

* Filologian Lizentziatua.

Zenbat diren testuak. Sei prediku ematen ditugu hemen, berorietan ageri diren urteen arauera ordenaturik, urterik erakusten ez dutenak besteen on-dotik ipintzen ditugula. Baino beste bi ere egin zituela badakigu, hau leitzen bait dugu: «nere animoa da, zuei adizera ematea, *iru igande* obetan...», 6, lat.

Bestalde, *José María Satrustegui*-k badu gure 2. sermoiaren aldaki bat, berak bidali zizkigun fotokopia batzutatik jakin duguna. Baino beste esku batek idatzia da eta bertako euskara aldaturik dago. Ezagutzen ditugu lau prediku esku honek idatziak eta aipatu dugun horren euskara bera darabiltenak. Nork norenak kopiatu zituen eta euskara aldatu? Ez dakigu. Baliteke gainera biak hirugarren testu batez baliatu izatea.

NOR, NON ETA NOIZ

Ezin dugu esan nor izan zen idazlea. Baliteke erlijiosoa izatea, garizuman predikatzeko bait dira. Pentsa daiteke herriren batean izan zirela entzun araziak: «juaten bazara, *tabernara*», 1, 2; eta *Nafarroan*, jakina: «Ezta juaten *Iruñera*, vaizic *Iruñeco videtic*», 3, 4. Darabilen euskarari gagozkiola, agertzen dira maiz mendebaleko euskalkien zerak: *dan*, *zan*, *ziran*, etab. Noiz izan ziren zabalduak? Lau 1743. eta 1753. urteen artean, eta beste biak ezin esan. Bere entzuleengana zuzentzen denean, honela egin ohi du: *Catholicoa(c)*, nere *Catholicoac*, nere *catholico maiteac*, *Bay catholicoac*, etab. Ez dugu aurkitu *Larramendiren* aztarnarik.

GRAFIA ETA FONETIKA

Hitz hasiera eta barruan ez da *y/-y-* ageri, *i/-i-* baizik, bokal ondoan edo artean: *ia*, *aie*, etab. Hitz hasieran beti *v-* dago eta ez *u-*; hitz barruan noizean behin *-u-* eta ez *-v-* edo *-b-*. Behin edo behin *ge/gi* eta ez *gue/gui*; eta «*qu*» bakanen bat «*cu*»ren partez. Askotan «cedilla» antzeko bat, konkor aldea ezkerrerantz begira dagoela, erasten da *c* eta *z* hizkien azpiko aldetik. *Beti -zt-*, salbu «*gaisto*», passim, eta «*erabastera*», 3,2at.; 3,3at. Bokal armonia oso gutxitan ageri da. Azkenik, zenbait hitz laburturik daude askotan edo gehienetan: *Christo* «*Xpto*», *Jangoicoa*, *Magestadea*, *Demonioa*, *San*, *Chrisostomo* eta *-mente* atzizkia. Latinezko pásarteetan ugariak dira laburpenak, eta okerrak.

MORFOLOGIA

Goi nafar egoaldekoaren zenbait ezaugarrirekin erkaketa bat egiten badugu, hau ikusten dugu: 1. bai *-kin* eta bai *-ki* maiz ageri dira; 2. ia beti-beti *-s* eta ez *-z*; 3. lehenaldiko adizkiek beti gordetzen dute *-n*; 4. ergatibo plurala *-ak* da eta ez *-ek*. Jakingarria gerta daiteke, bestalde, «*-tason*» atzizkia, «*-tasun*» ekin ageri dena; eta «*-ea*», «*-bea*» hitz amaieretan: «*compañeа*», 1, 2; «*arrazobeа*», 2, lat.

Hitzetan, hauek ipintzen ditugu: «*aberas*» eta ez «*abras*» baina «*abre*», «*bekatu*» eta «*pekatu*», «*bekala*» eta «*bezala*», «*borz*» eta «*bost*», «*erran*» eta

«esan», «guzzi» eta «guzi», «sandu» eta «santu». Erlatibozko perpausa mol-datzeko, *bai(t)* ere erabiltzen du: «*baitago*» ‘qui est’, 1,2at.

Aditzaren arloan, xedezko perpausak egiteko, *-koz* atzizkia erabiltzen da, oso gutxitan *-ko*. Adizkietan «*zachaten*» ‘zaitzaten’ eta antzekoak ikus-ten dira; eta *iaiz* ‘haiz’ ta «*derazazuten*» ‘diezazuen’: «*baldin... baiaiz*», 1, 1; «*barca derazazuten*», 1, 3.

HIZTEGIA

Testuak zer euskalkitan dauden jakiteko interesarriak izan litezkeen zenbait hitz jartzen ditugu hemen. Ikusten ditugu *aiziña* eta *aurrean*, *aniz* eta *asko*, *azendu* eta ez *ahaztu/ahantzi*, *deus* baina ez *ezer*, eta *mintzatu* gutxiago hitz *egin* baino. Ez dugu ahantzi behar *ai* ‘ojala’ esan nahi duena/ zuena: «*Ojala izan ailu*» ‘Ojala izan balu’, 5, 2; ez eta ere *Iruñe(a)*: «*Ezta juaten Iruñera*, vaizic *Iruñeco* videtic», 3, 4.

SINTASIA

Zenbait aldiz genitiboa atzetik ipintzen da: «*ofensa Jangoicoarena*», 1, 2. Behin aurkitu dugu honelako hau: «*sentizendu batec pobre izana*», 6, 2; baina bi lerro beitiago: «*berzebatec sentizendu osasunagabe izatea*», 6, 2. Pasiboan instrumentalak erabili du hemen: «*izandu ninzan eramana espiri-tuan Ainguera bates*», 4, 1at. Bi aldiz aurkitu dugu: «*Demonio baten egoz-ten*», 5, 1; eta «*Demonioaren egozten*», 5, 1at.

GURE LANA

Orrialdeek daramaten zenbakia guk ezarria da, autoreak ez duelarik ezer ipini. Ez dugu kontutan hartu «cedilla» edo antzeko eraskina. Laburpenak deslaburtu egin ditugu, guk sartutako hizkiak parentesi artean idatzirik. Latinezko pasarteetan dauden okerrak zuzendu gabe utzi ditugu, eta azpi-marratu gabe dauden latinezko sei bat pasarte azpimarratu egin ditugu. Tes-tu bakoitzaren titulua, eta gaia adierazten duten esaldiak ere azpimarratu, egileak batzutan bai eta bestetan ez duelarik egiten hori.

LABURDURAK

- a. aditza
- ad. adberbioa
- adj.adjetiboa
- at. atzetik
- au. aurrizkia
- i. izena
- Ik. ikus
- in. interjektzioa
- io. izenordaina
- j. juntagailua
- p. posposizioa

1. testua

†

Domingo primero de Quaresma¹.

**Ductus e(st) Iesus in desertu(m) à Spiritu, ut tentaret(u)r
à Deabulo &.^a Mat. Cap. 4.**

Egun atera izanducen (Chris)to gure Redentoreoa desiertora, tentatua izatera Demonioaganic, eta arma Demonioa garaiceco eramanzituenac, ciren berroguei eguneco barua: *et cu(m) ieuinasset quadraginta diebus, et quadraginta noctibus*: eta oracio eguitea; baitirade arma poderoso bazuec, garaiceco Demonio guciec; eta norc eramanzuen (Chris)to desiertora, cen Spiritu Santua; Demonioac bere partetic eramanzuena cen soberbia; eta armac ceñequi (Chris)toren contra ematen duen, dirade irur tentacioac, ebangilioac dion bezala. Lendabikicoa: *dic ut lapides isti panes fiant*: eguinzac arri obec, ogitan izuldaitecen; baicen gularaco tentacioa. Bigarrenra: *si filius Dei es mitete deorsu(m)*: baldin Jang(oicoare)n semea baiaiz vzec ere burua erorzera, templo onen goienetic, eze Aingueruac recebituco aute; auzen banagloriaco tentacio². Irugarrenra: *haec o(mn)ia tibi dabo, si cadens adoraberis me*: baldin belaurico jarri eta adoracen banauc, emanen dizquiat munduko erreñu guciac; au izanducen codizaraco tentacioa. Baña (Chris)to gure Jaunak garaitu zituen tentacio obec; eta desprecioarequi egocizuen Demonioa; baña eznaiz admirazen (Chris)toc garaicechan tentacio obec; aldebat bere podore Diuinoarequi, eta berze alde, ceren eramana izanduzen tentaciota Spiritu Santua ganic; zerengatic persona bat tentacioan arquicen bada, culparic gabe [1at.] gabe esperimentatuco du Jang(oicoare)n faborea; baña bacoizac berac villazen badu tentaciota occasioa, miserabilem(en)te erorico da.

Zegoan gaizqui Erregue Ococias, eta deseоarequi jaquiteco sendatuco cen, vialducituen bere mutilletatic bida, Demonioa gana comunicazera, ea vicico cen, edo ez: *ite (con)sulite Belcebuth, vtrum(m) vivere que(am) hac infirmitate*: aterazizaien Elias videra, eta erranzien, eztuzute cer juan aiziña: *haec dicit Do(min)us de lectulo, quem ascendisti, non descendes, (sed) morte morieris*: erraiozute ceren nausiari; Jang(oicoare)n partetic; dazan ogazetic jeiquico eztela, baicirc³ erioce gaistos illen dela, eta condenatuco dela: *morte morieris*: Bada certan egonduzen Erregue onen desdicha, eze viziric dagoala condenazen baitu Jang(oicoa)c seculaco infernuetara; barcazendiotelaric berze aniz Erregue, eta becatoreri? Onen dañua egonducen, dio Abulenseac, ceren berac billatuzuen occasioa, eta tentacio⁴, eta au Demo(nio)a bera: *sane Ococias ad quaerendum perresit*: eta au aiñ señale gaistoa da, eze irremediablezat ematendu Jang(oicoa)c, eta condenazen du: *morte morieris*.

Ó Jangoico soberanoa, cembaт eri, dauden munduan Erregue Ocozias becala? Enaiz admirazen, cembait aldis, flacoac becala, garaituric gueldi dai-tecen guizonac, Demo(nioare)n tentacietaan; izanic enemigo au ain andia;

1. Eskuin aldeko goiko zokoan honela dio: «año 1743»; eta ezker aldekoan, «1826».
2. Hola, eta ez «tentacioa».
3. Lehenbizi «baici» idatzi du, eta gero «-ric» erantsi.
4. Hola, eta ez «tentacioa». *Ik.* 2. oharra.

eze (Chris)tori berari ere ezpaicion barcatu, egun tentaceco? baña izan daitecen animac, ain galduac, ece berac procurazen baitute ocasioa? eta billatu Demo(nio)a? eta amatu becatua? eta seculaco galceco videa? Ó cein gauza las [2] lastimosoa, cein dificultosoa ematen duden oen salbacioa? gauza bat da garaitua izattea⁵ tentacioan, berzebat da villacea tentacioa? Zuc daquizu juatenbazara, tabernara, edo compaňea gaistoa dagon lecura, villazen duzula ocasioa, galzeco zure anima, sobra edanarequi; maldizioqui⁶, blasfemiaqui, quimerequi; eta aniz desordenequi; bada cer misterio da Jang(oic)o soberanoac, pronuncia dezan sentencia, zure condenacio eternoco⁷, ala nola Errengue Ococias, ecusiric zure gogortasona, eta eztuzule nai apartatu ocasio gaistoetatic; zeren zure culpac eztira flaquezas, baizi malicias. Eta cer erranendut zutas emacumea; zoazena peligrora, eta ocasio ematera guizonai, Jang(oico)a ofendizeco? Eztidazu erranen, certara zuazen, guizonac dauden, edo duazquen lecura? zoazi nezesidades; ez? caridades? guitiago, dio S(a)n Bernardoc; bada certara zuaz? respondituco didazu zuazela ecustera, eta diuerticera? baña eztuzu adberticen zoazela zuere ecuszachaten, eta zuc curiosidades beguirazen badiezu guizonai, zuri ere bearbada maliciosam(en-)te beguiracendizutela guizonac? Eta cer izanenda baldin juatenbazara, guizonac deseazachan intenzioarequi? Cembat culpa, eta cembat ofensa Jangoicaren, ocasionatuco eztu onelacoac, guizonen ertean? guizonac pagatuco dute berenculpa, baña emacumeac eztute guitiago pagatuco, ceren emanuten ocasio guizonei, Jang(oico)a ofendizeco;

[2at.] Eta cer izanenda aies, egemplo, eta conseju gaistoa ematen dute-nes, beren proximoei, Jang(oico)a ofendizeco? batac aconsejazen du lagun proximoa, juramentu falsoa egunidezan, berari elduzaion probechuegatic; berzeac benganza ardezan; berceac ebasdezan; berzeac murmuradezan, zeren arequi gaizqui elduden. Baña ia (Chris)to gure Jaunac prebenizen die onelacoei, condenacio eternoia; baldin demborarequi egiten ezpadute penitentzia, beren culpes, eta becatues; baña adizazute nola: *ite maledicti in igne(m) aeternu(m), qui paratus e(st) Diabulo, et Angelis eius:* zuazte maldituac seculaco sura, preparaturic baitago Luziferren, eta bere Aingeruen daco. Ó Jangoico, ondasun infinitoa? eztio Jaun onec, dagola infarnuco sua prebenituric guizonen daco; ala aduertitu zuen S(a)n Juan Crisost(omo)c⁸ *Nunquid nobis Deus igne(m) paravit? non, sed Deabulo, et Angelis eius:* Demonio arendaco, eta bere Aingeruen daco prevenituzuen infernuco sua.

Baña cein dire Ainguero obec? naizute jaquin? bada nic erranen dizutet, dio Plutarcoc. Jaquin beazute eze eztirela sollic Ainguero aiec, cerutic infarnura erorizirenac, Demo(ni)o viurturic, eze baitare christau gaistoac, Demonioen oficioa eguiten dutenac, inducien, eta tentazen dituztenac lagun proximoac becatura, beren vizize gaisto, eta escandaloequi; Ainguero oendaco? Satanasen ministro oendaco? dago preuenituric infarnua: *qui paratus e(st) [3] Diabolo, et Angelis eius, et nuntijs eius:* dio S(a)n Cirilo Alejandrino, cer contu emanduzute⁹ azeneco egunea(n), consegero gaistoac? eta nola respondituco duzute aimberze carguri, nola ceren exemplo gaistos ocasionatuduzu-

5. Hola, -tt- bikoitza.

6. Hola, eta ez «maldizioaqui».

7. Hola, eta ez «eternocoa». *Ik.* 10. oharra.

8. Hola: «Crisost(omo)c», eta ez «Chrisostomoc».

9. Hola, eta ez «emanenduzute».

te(n)? eta norc jaquiñen ditu zuen maldadeac? *delicta, quis inteligit?* baña orai guciac ezpadaquite; contuetaco egunean manifestatuco ditu juez Divinoac, zuen confusioco, eta condenacio eternoca¹⁰, baldin orai ezzpaduzute negar, eta penitencia eguiten, guero barca derazazuten¹¹ Jaun Diuino aren Misericordie.

Christaua beldur izanzazu cere condenacio eterno; ezaiteala izan causa condenaceco animac, redimitiuac (Chris)toren odol preciosoarequi? ezaiteala izan Demon(ioare)n lazoa, eta Satanasen ministroa, cere exemplo gaistoarequi; ezaiteala izan, tentazalea, eguiten duzularic Demoni(oare)n oficioa? apartazaite ocasio peligrosoetatic, ezzpaduzu nai erori culpan; bada Demon(ia)c ezindezaque deus, bacoiza bere borondates entregazen ezzpazaio; cerengatic egun garaituzuen (Chris)to gure Jaunac, eta guenducion indar guciac; bada eztuzula¹² nai izan ain tontoa, entregacen zaizquiolaric cere borondatera esclabozat seculaco; icaszazu garaicen cere tentacioac, (Chris-)toren exemploarequi? Ecusazu nola apartazen den desiertora, zu apartazai- tecen ocasio peligrosoetatic; ecuszazu nola baruzen den berrogei¹³ egunes, jaquinazun zuc ere baliacen arma ones, eta orrequi icaratu coda Dem(onio)a eta garaituco duzu erraz; eta seguituco zaizu zuri mundu onetan consueloa, eta bercean gloria; *qua(m) michi et vobis*¹⁴.

10. Hola, eta ez «eternocoa». *Ik.* 7. oharra «eternoco»ari buruz.

11. Hola: «derazazuten», eta ez «dezazuten».

12. Hola: «eztuzula», eta ez «eztezazula».

13. Hola, eta ez «berroguei».

14. Punturik gabe bukatzen.

2. testua

†
Sermon del Quarto Dom(ing)o de Adbiento ¹
Praedicans Baptismum penitentiae in remisionem Pecatorum.
Lucae cap. 3.

Proponizen digu Euangelista Sagraduac S(a)n Lucasec bere irugarren capituloan, Predicacea becatoreai ² penitencia bere becatuena, orrequin medio onetas izandaitezen barcatuac bere becatu guiac: *praedicans Baptismum pe(nitenti)ae in remissionem pecatorum*: Euangelista Sagraduac S(a)n Lucasec proponizen egun digun predicadore au, zeinda? Da Precusore ³ diuino S(a)n Juan Baup(ist)a *factum e(st) verbum Do(min)i super Iuanen Zacariae filium, praedicans Baptismum penitentiae in remisionem pecatorum*: Seguizendiodala nic egun precusore diuino Baupertistari bere predication onetan, Predicatuco dizutet nic ere egun eguindezazutela zuen becatuen penitencia: *Praedicans Baptismum penitentiae in remisionem pecatorum*: penitencia au ⁴ consistizen du, negar eguitean becatoreac bere viziza gaisto pasatu duenas, confesacen dituela bere becatuac, dolore eguiasco batequin, eta proposito firme batequin, ez beñiere gueago beazecoz; eta penitencia au, aiñ da necesaria salbazecoz becatorea, ezen essaten du Christo gure Jaunaren Magestadec: *si penitentiam non egeritis, o(mn)es similiter peribitis*; esaten digu bada ezen baldin ezpadugu eguiten penitencia, guztioc erremedioric gabe pereciuco dugula, *o(mn)es si(mi)liter peribitis*.

Desazen ⁵ dudela bada nic zuen animen salbacioa obligacio duden bezala, nai dizquizutet proponitu, zer diligenciaquin irdisten den penitencia eguiasco bat, orrequin goardazen dituzutela, gueldidadin becatorea izuliric Jangoicoaren graciara, eta amistadera, eta por consigui(en)te [1at.] siguiente gozadezan ⁶ bere gloria soberano artas, bada fiñ onetaco Jangoicoac jaio izanduguiñuzen, edo bota guñuzen mundu onetara. Pictabiense Doctoac izeguiten duela, zer diligenciak egun beardituen becatoreac, logracecoz Jangoicoaren gracia, galdu izanduduena bere becatuac dirala medio; esaten ditu iz abec: *ista autem dispositio debet fieri tribus modis, scilicet, culpam auferendo, Deum inquirendo, mentem offerendo*: dio ezen, beardedela disponitu becatorea, lendabizicoa, vñizenduela becatua; vigarrena villazen duela Jangoicoa, eta irugarrena ofreciendoa bere erioza:

Lendabizico diligenzia bearduena, becatoreac logracecoz penitencia eguiascobat ⁷, eta izulzeco, Jangoicoaren graciara, eta amistadera, da vñizea becatua, zeñetan vizidan; *culpam auferendo*: eztezazutela pensatu naiduzutela ⁸ Predicatu, baru zaiteztela, vra, eta oguiarequi, paradezazutela

1. Eskuin aldeko goiko zokoan, honela: «año 47.51».
2. Lehenbizi «becatoreri» idatzi du.
3. Hola, eta ez «Precusore».
4. Hola: «penitencia au», eta «consistizen du».
5. Hola, eta ez «deseazen».
6. Lehenbizi «gozadezaquen» ipini du.
7. Hola, eta ez «eguiascobat».
8. Hola, eta ez «dizutedala» edo. *Ik.* paragrafu honetan bertan «beardizutedena» eta 2at., 2. paragrafuan «dizutadana».

zuen araguietan cilicioac, disciplina zaitezuela aliqueta odoles bete artean zuen araguiac, eta ala berze mortificacio andiac, solamente Predicatu naidizutet, ezen becatoreac negar egunidezan vere vizi gaistoas confesio on eguiasco batequin, eta proposito firme batequin ez gueago ofendizecoz gure Jangoicoaren Magestadea; Eta auda penitenziaren virtutea, predicatu beardizutedena, gauza aiñ necesarioa bezala irdistecoz salbazioa: *penitentia e(st) preterita mala plangere, eta plangendo iterum n(on) commitere*: eta penitencia onetas iz eguinzuene Christo gure Jaunaren Magestadeac: *si penitentiam n(on) egeritis o(mn)es si(mi)liter peribitis*; baldin ezpaduzute eguiten penitencia, perezituco duzute.

Eta arrazobea da, zergatic gozazecoz Jangoicoas, bere gloria soberano artan, bearda conzienziaco garbitasona: *beati mundo corde, quoniam ipsi Deum videbunt*: eta nola becatoreac galdu izanduzuen graciaren zuritasuna⁹, eta edertasona becatu mortalaren mancharequin, eta an zeruan nola ecin sardeitequen gauza [2] gauza ziquiñic, eta manchaturic: *n(on) intrabit in eam aliquod coinquinatum, aut abominationem faciens*; orrengatic bada, penitencia eguiten eztuen becatoreac, perecitucodu erremedioic gabe. Vada cer erremedio onetaracoz? Eguiten duzuna aurpegua, eta esquec ciquinzen dituzunean; cer eguiten duzu orduan? garbiza. Vada ala, valdin galdubaduzu graciaren edertasona, becatueren mancharequin, combenida garbizaitezen penitenciaco vrarequin; ala esatendu Jangoicoaren Magestadeac, bere Profeta Isaiasen medios: *labamini, et mundi estote*: garbizaitezte, zaute guztiz chauturic: eta nola izan bearda au? penitencia eguiasco batequin, bada bereala essatendigu: *auferte malum cogitacionem vestrarum ab oculis meis quiescite agere perberse*, aparta chezute nere presenciatic zuen pensamentu gaisto guztiac, gueldizaitezte ia eguiteas obra gaiztoac.

Guztiz da ona intento onetaracoz essaten duena Nicolas Causinoc bere Simboloetan; dio ezen bada, ezen Zerdeñan dela iturribat alaco propiedadea duena, ezen baldin animali pozoiescorenbatec eguiten badio nor baiti dañu, edatearequin edo garbizearequin iturri onetako vrean, bereala guedizendela¹⁰ libre, vere pozoi artatic. Da Catholicoa, becatu mortal, benenoa, eedo¹¹ pozoi guztis andia, anima venenos betezen duena ala esaten du S(an) Tiago Apostoloac: *pecatu(m) cum consumatum fuerit, generat mortem*; eta becadoreac duen erremedio¹² librazecoz beneno onetatic, da garbiza penitenciaco vretan: Au geago¹³ esaten digu autore onec; dio ezen bada Hetrotida derizon lequen dela iturribat deizenzaiona Melas, eta baldin iturri onetan edaten badute ardiac direnac belzac, edo valdin badire belzac, izulzen direla churiac, edo guztiz gueldizen direla churituric: Geldizen¹⁴ dabada becatorea becatu mortalaren medios bere concienzian, icaz guztiac [2at.] tiac beño¹⁵ belzago eguiñic, esatendu Jeremias Profeta Santuac: *denigrata e(st) super carbones facies eorum*. eta edatenduela, penitenciaco vretatic, zeiñdan iturria ematendiona animari vizia, esaten duen bezala Profeta Santu Dau-

9. Hola: «zuritasuna», baina «edertasona». Eta 14 hitz lehenago «garbitasona».

10. Hola, eta ez «gueldizendela».

11. Hola: «eedo».

12. Hola, eta ez «erremedio».

13. Hola, eta ez «gueago».

14. Hola, eta ez «Gueldizen».

15. Hola, eta ez «baño».

dec: *apud te e(st) fons vitae*: gueldizenda guztia ederturic, eta churituric, graciaren churitasonarequin.

Au bada nere Catholicoac encargazen dizutet, eta predicazzen dizutet egun: Aguinzen dio Jangoicoaren Magestadeac Profeta Isaiasi, ezen doaiela Predicazera bere Pueblo, eta Jacoben echecho maldaden¹⁶ contra, eta adbertizen dio, edo esaten dio, ezen vozac, edo izac izanen direla, trompeta batecoac bezala: *quasi tuba exalta vozen tuam, et anuntia populo meo scelera eorum, eta domui Iacob peccatu eorum*; eta bada cer misterio du, ezen Predicadore onen izac izan beardutela, trompeta batecoac bezala? *quasi tuba*: esque zioainen predicazera, eta animazera penitencia egunzezaten: eta onen-gatic? bai. Trompeta da Guerraco instrumentua, eta guerretan serbizen du bazuetan embestizecoz enemigoaren contra, beste bazuetan erretirazecoz, eta igues eguitecoz; eta eguiten duenac penitencia, izan bearda, eguitendiola guerra bere vizio, eta apetituen contra, eta igues eguiten duela ocasio guztietatic, eta peligro guztietatic, auda bada predicazzen dizutadana nic nere Catholicoac; guerra vizio guzien contra, aliqueta gueldi daitezen artean garaituac guztiac confesio on eguiasco baten medios; eta igues eguitea, becatuko ocasio guztietatic, bada au aconsejazen ere digu, Profeta Santu Dauidec: *Diuerte a malo, et fac bonum*.

Obequi bada lograzeco au, considera beza bacoizac, ezen Jangoicoaren Mag(estadeac) criatu zaituela alaba dezazun, serbidezazun, eta amadezazun mundu onetan, eta guero [3] guero gozadezazun eternidade batean bere gloria santu artan, eta au izan bearda eguitenduzula penitencia zure becates, cuidazen duzula gueago zure anima triste orretas: cegoala¹⁷ Christo gure Jaunaren Magestadea Cafarnauc Ziudadean, allegatu zizaion zenturiobat, eta emanzion noticie, nola bere mutilla zegola guztiz eri, eta ala digna zedilla sendazeas: *Do(min)e puer meus iacet paraliticus, et male torquet(u)r*. Erreparazazute guizon onen ichutasunean. Centurion au cen Gentila, eta adorazen zituen idoloac; eta onequi¹⁸ guztiarequin zeukan Christo gure Jauna, guizon diuinozat, eta poderosozat, eta orrengatic zuen fedea, ezen zegon lecu artatic solamente bere izarequin emanzezoquela osasona¹⁹, bere mutillari, solamente cuidazen zuen aren²⁰ osasunas, zergatic falta eguitenzion, baña ezuen cuidazen bere animas; ala suzedizen zaio anizi, bada cuidado gueago parazen dute beren echecho combeniencia temporaletan, espiritualetan baño, gueago cuidazen dute beren gorpuzas, anima tristeas baño:

Iduquizazu zure anime pobreas misericordie, compasioa, eta lastima; beguerizaizo²¹ dagola eguinic Demonien²² ostatu publicoa, zeñec erreisstenziaric²³ gabe sarcen diraden, zure anima triste orretan, ia pensamentu gaistoas, ia iz gaistoas, eta ia obra gaistoagoas: *fac ergo elemosinam animae tuae*, essaten dizu S(a)n Agustinec socorrdezazula zure anima pobrea, bada

16. Hola, eta ez «maldadeen».

17. Hemen «cegoala», baina 16 hitz beheago «zegola», eta gero «zegon», denak paragrafu batean.

18. Hola: «onequi», baina «guztiarequin».

19. Hemen «osasona», baina 7 hitz arrerago «osasunas».

20. Lehenbizi «bere» idatzi du, baina berehalaxe aldatu.

21. Hola: «-zaizo», eta ez «-zaiuzu».

22. Hola, eta ez «Demonioen».

23. Hola, eta ez «erresistenziaric».

guztiz arquizada necesida²⁴ andian, adizazu, adizazu zure anima triste orrec ematen dituen clamore andiac, bere trabaju profundidadeco artatic; eta adizazu esarmiento au, estimadezazun gueago zure anima, eta begiria dezazun obequi emendic aiziña [3at.] ña zure animas.

Erreferizendu Thomas de Cantinpratoc, ezen Franzian izanduzela guizondibat, ceiñ azenduric Jangoicoas, eta bere anima tristeas, vizivela guztiz diuertituric Jangoicoaren ofensetan; arquituzen ocasio batean beste bere adisquide bazuequin jaten, eta edaten ganadu desenfrenatuat bezala; guero abiatuziraden tratazen gauza ascos, eta oben ertean, ea cerzan munduan acabatuta, edo bizizau²⁵ acabatuta, esanzituen gaizqui bizizen guizon arc iz abec; orgacaizquite engañaturic, eta entreteninuturic, esatearequin ezen gure animac biziza au acabatuta, badutela beste biziza bat beste munduan, edo mundu au acabatuta, badela beste mundubat guero gure Animenzat, irri eguinutzun guztiak disparate onetas, eta onetan allegatuzen arera guizombat, eta galdetuzion guizon onec, ea zertas tratazen zuten, eta erespondatu²⁶ zion, guizon gaizqui bizizen arc, tratazen zela, gauza onetas, eta onetas, eta proseguituzuen essaten, eta eguias esatendut, esatenzuen, ezen baldiñ balizague norbait nailuquena erosi nere anima, bereala salduconioque, nere adisquide obec convidazecoz; Vada nic erosico dizut esanzion guizon arera allegatu zen arc; ajustatu ziran precioan, eta pagatu zuen, eta diru arrequin erosi zuen gueago cer jan, eta edan guztienzat; allegatu zen onetan illuna, eta esanizandu zuen anima erosizuenac, Jaunac demborada bacoiza errecojiceco bere echera; baña esanzadazute lenago: erosten duenac zalbidat bere cabestruequin, ezta berea ere cabestrua, eta eresponditu zioten guztiak, bai por cierto: Vada jaquinazute, esanzuen orduan, ezen ni naizela Demonioa guizon [4] guizon, desdichatu onec saldudit bere anima; eta ala aguinzendu Jangoicoac, ezen animan, eta gorpuzean eramandezadela nerequi infernuela, eta esatenzuela, eta eguitenzuela, alchatu zuen airean desaparezizen zela andic, sepultazen zuela infernuco labe andi artan, zeñetan dagon errezen, eta egonen den, alibioco esperanzaric gabe eternidade guztian²⁷.

Veguirezazu becatore tristea, zer miseria andira etorzen den bere anima despreziazen duena, emanziona²⁸ gozazecoz Jangoicoaren gloria soberano andi vra, bere compañean, bere Ama Santissimaren, eta Aingueruen compañean; becatorea, baldin ezpazara emendazen, etorrico zarade zuere desdicha andi artara; Jangoicobat duzu solam(en)te eztuzu animabat baizen, eriozebat echedeten duzu; bada zer eguiten duzu becatuan orrela sarturic? nola eztuzu vzizen amistade desonesto ori; nola eztitzu vzizen odioac, eta enemista-deac, nola eztuzu errestituzioa eguiten ebasi duzun gauzas; nola eztiozu izulzen zure proximoari quendudiozun onrra; beguirazu becatorea, zure anima tristea oraïn dagon becala Jangoicoaren desgracian, dago bereala erorzezo infarnuetan; ea eztezazula luzatu egunetic egunera combertizea, eta izulzea Jangoicoa gana: *ne tardes conuerti ad Dominum, et ne diferas de die in diem.* Zergatic derrepente etorricoda Jangoicoaren ira, eta indignacioa zure gañean, eta izanen zara castigatua betico infernuco su andi artan; *subito*

24. Hola, eta ez «necesidade».

25. Lehenbizi «bizau» (sic «biz-») ipini du.

26. Hola: «erespondatu», eta paragrafu honetan bertan «eresponditu».

27. Puntuaria falta.

28. Hola, eta ez «zizaiona» edo.

enim veniet ira illius, et in tempore vindictae disperdet te. Catholicoac ōrañic baduzute dembora eguiteco zuen becatuen penitenzia confessio ōn eguiasco batequin, essaten digun becala egungo ebangilioan S(a)n Juan Baup(tista)c *Praedicans Bauptismum pe(nitenti)ae in remisionem pecatorum;* eztaquizute guero izanen duzuten dembora; ea essanzagun orai guztioc vioz osoarequin Jesu Christo ²⁹.

29. Puntua falta.

3. testua

†

Sermon del Seg(un)do Domingo de Quaresma¹

Asumpsit Jesus Petrum, et Iacobum, et Ioanen fratrem eius::: et transfiguratus est ante eos Mathei cap. 17

Egungo egunean iganzen Christo Jesus diuinoa Thaborco mendiaren goienera, zeramazquiella² vere comapēnean³, vere iru Discipulo amatuac, eta escogituac; Pedro, Juan, eta Diego: *asumpsit Jesus Petrum, et Iacobum, et Ioanem fratrem eius*; eta an mendiaren goien artan, non guztia transfiguratu izanduzan aren magestade diuinoa: *et transfiguratus est ante eos*; vetezen zela guztia gloria andias, vere aurpegui diuinoac tisteazen zuen eguzqui ederbatec bezala: *resplenduit facies eius sicut sol*; eta bestidurac aguertu ziraden, elurra beizan⁴ zuriac, *vestimenta eius facta sunt alba sicut nix*; Aiñ edertasun, eta gloria andias zegoen betea, mendi guztia, ezen enamoraturic S(a)n Pedro lequ artas, eta gloria artas, abiatu zan esatera, vere, Maistru diuino Christo Jesusi: *Do(min)e bonum est nos hic esse*; Jauna ongui gaude emen; *faciamus hic tria tabernacula, tibi vnum, Moysi vnum, et Eliae vnum*; eguin dechagun iruabitacio, edo iru eche, verezat bat, Moysesenzat bestebat, eta Eliasenzat bestebat; Pedro, eta non gueldicen zarade zu? Aiñ zegoen Pedro enamoraturic gloria soberano artas ezen ezan oroizen vere personas:

Considera ezazu Catholicoa zer gloria andia daucan Jangoicoaren Magestadeac preparatua, eta disponitua, zeruan vere escogituenzat, considera ezazu premio eternidadeco vra, eta zeruko edertasun vra, vada consideracio orrequi eguiñen zaizquizu suabeac, eta dulzeac munduco trabajiac, eta virtuteco videa; vada valdiñ Jacobi iduritu izandu bazizaozcan guiti, zazpi vrteco trabajiac, penalidadeac, eta mortificazioac, vere esposa prometitu Raquel zion amorio andia gatic: *Videbant(u)r illi pauci dies pre amoris magnitudine*; trabajiac, penitenciariac andienac idurico zaizquizu suabeac, eta dulzeac, consideraturic, Jangoicoc⁵ prometitu digun edertason infinitoas; O zu zaudena lotan, becatuan, munduco tiniebla peligrosoen artean; irazarri zaitez, irazarri zaitez eta alchachezu zerura veguiac, eztezazun peligratu mundu [1at.] mundu miserable onetaco gustoetan, eta peligroetan; ala animazen zuen vere seme etatic bat padecicera Macabeon⁶ ama valerosoac, eta ilustreac; *peto nate, ut aspicias caelu(m)* Veguirezazu nere semea zerura, eta considera ezazu zer gloria andia daucan Jangoicoac disponitua, eta preparatua vere escogituenzat, orrequin martirioco tormentua eguiñen zaizu sua-bea;

Vaña arrazobea izanenda, veguirazea nic zerura, alentazecoz, eta animazecoz, animac veguirazera: ò Patria, edo lecu amable! ò Sion queritua! ò viziza dichosoa (dirade guztiac S(a)n Agustiñen izac) viziza segurua, viziza

1. Eskuin aldeko goiko zokoan: «año 1749».

2. Hola: «zeramazquiella».

3. Hola, eta ez «comapēnean».

4. Hola, eta ez «bezain».

5. Hola, eta ez «Jangoicoac».

6. Hola, eta ez «Macabeoen».

baquesco, viziza ederra, viziza garbia, viziza castoa! permiti nazazu zutaz izeguitea: *libet sane de te loqui*; zutaz escriuizea; *de te escribere*: zutaz adizea: *de te audire*: Leizea egunoro zure gloria: *de tua beatitudine, et gloria, quotidie legere*: Vaña abiatu baño lenago esatera zerbait zeruco gloria soberano artas; necesitazen dut gracia soberanoas; alcanzazenda M(ari) Santissimaren interzesio poderosoas, eta obligazecoz esandezagun guztioc *Aue Maria*.

Asumpsit Iesus Petrum, et Iacobum, et Ioanem fratrem eius::: et transfiguratus est ante eos Mathei cap. 17

Galdezen zuen Profeta Santu Dauidec ansia andiarequin, eta cuidado andiarequin: Zer ondasunac dirade neri echedeten didatenac zeruan? *Quid enim mihi est in caelo* Zerdirade neri an prometizen zaizquidianac? Zer gloria da an dagoena disponitua? *Quid enim mihi est in caelo?* Nor izanen oteda asqui, edo suficiente errespondizecoz? Izanenda asqui S(a)n Anselmo bat? Vaña esatendu Santu onec S(a)n Pablo Apostoloarequin, ezen zeruco gloria excedizenduela, edo pasazenduela, capazidade humano guztia: *quia nec oculus vidit, nec auris audiuit*; izanenda asqui S(a)n Juan Christomoren⁷ sabiduria? Vaña confesazenere du Santu onec, ezen eztela izic explicazecoz bear-den bezala, zeruco ondasun eterno aiec: *iustae rei dignitatem nobis sermo nullus adesse potest*.

Izanenda asqui S(a)n Agustinen ingenio animosoa? Vaña esanen du Santu onec cer pasatuzizaion; Arquizenzan vere Aposentuan, edo Celdan, jaquite-coz [2] jaquitecoz, eta escribizecoz desevo andiarequin Bienabenturanza gloriecoas; eta apenas abiatuzen escribirera S(a)n Geronimori cartabat Bienabenturanza gloriacoaren gañean: Aguertu izanduzizaion Santu au guztiz gloriosoa (zeñ illzan egun artan bertan) eta bete esquiero arguisoberanos, esanzion voz guztiz suuaearequin: *Augustine, quid quaeris?* Zerda intentazien duyuna Agustino?⁸ debalde necazen zarade, auiazea zu explicazera zeruco gloria, aliqueta niri bezala esperienziac eraquisi dezazun artean zerdan zeruco gloria; orrekiñ guelditu zan S(a)n Agustiñen ingenio andia garachuri, ezen, ezta posible mundu onetan explicazea zeruco gloria andia, aliqueta experienzias gozatu artea⁹:

Zeiñ ongi esaten duen insufizientzia au suceditu izanzizaionac, Percusore¹⁰ diuino Bauptistaren discipulo biri! Galdetu izanduzioten Jesu Christo gure Jaunari, ezen esanzezola aren Magestade diuinoac, non zuen vere habitazioa: *Magister ubi habitas*: eta erresponditu izanduzion Christo Jesus diuinoac: *Venite, et videte*; atozte, eta icusico duzute; eztio esaten; nere habitatioa¹¹ da onelaco lecutan, onelaco carrican, onelaco echetan; eta vadaquizute zergatic; vada esaten digu Alcuino Dotoac¹²: zergatic, habitazioa zeñetas izeguiten duen Jesu Christo gure Jaunac, da Bienabenturanza gloriacoa, eta ala esatendiote, datozaela, eta iqusico dutela: *Venite, et videte*:

7. Hola, eta ez «Chrisostomoren».

8. Hemen «Agustino», eta berehalaxe «Agustiñen».

9. Hola eta ez «artean».

10. Hola: «Percusore», eta ez «Precursore».

11. Lehenbizi «habizatioa» idatzi du, gero «-z-» ukitu du, baina ez du ukitu «-t-» hizkia.

12. Hemen «Dotoac» dio, baina berehalaxe «Doctoac».

valdin desazen¹³ vaduzute jaquitea nere habitacio eterno artaco lecua, eztutze zer esperatu esatea nic izaquin, zergatic ainbeste da, eta aiñ andia vere grandeza, excelenzia, eta anditasuna, ezen aunque iusqui ditequeala, eta gozatu, vaña eztaiteque esan; eta ala atozte, eta iusquicu duzute: *Venite, et videte, zergatic experienziac esanen dizute, adituco eztezutena, aunque nic zuei esanagatic: quasi dicere* (escribendu)¹⁴ Alcuino Doctoac) *habitaculum meum explicari non potest sermone, sed opere demostrat(u)r:*

Iusqui zazute emen nere catholicoac errespuesta eman bearden gloriaco preguntau: Naidu jaquin Dauidec zerc echedeten dion zeruan, *Quid mihi est in caelo?* deseazen duzute zuec guztioc jaquitea? Vada, *venite et [2at.] et videte;* atozte esperimentazera, eta jaquiñen duzute desazen duzutena: *Venite, et videte:* Atozte fedesco pausuaquín¹⁵, atozte obra onetato¹⁶ pausuaquín, eta adituco duzute zeden¹⁷ gloriaco Bienabenturanza: *Venite, ergo credendo, et videte intelligendo;* au bay; vaña explicazea bearden bezala, zer dan zeruco gloria, imposible da mundu onetan iñor¹⁸ ere explicazea, aliqueta bacoizac gozadezan artean, eta icusi dezan artean: Onequi guztiarequinerie esanbeardut zerbait zer dan Bienabenturanza, edo gloria, zuec deseо, edo ansia andiarequin afizionazaitezten erabastera ainbeste ondason:

Quid mihi est in caelo? Zer da Bienabenturanza, edo gloria, eta zer ondasun dirade arquizen direnac Bienabenturanza onetan, edo gloria onetan? *Quid mihi est in caelo?* ezta beste gauzaric gloria (esatendu Boezio doctissimoac beste Theologaquin)¹⁹ vaizen estadu guztiz perfectissimobat, zeñetan arquizen diraden junto ondasun guztiac: *est status o(m)num bonorum aggregatione perfectus* Da gloria (esatendu Benerable Puentec) betico estadubat, seguroa²⁰, ezin muda daitequeana, culpa, eta pena guztietatic librea, eta desealdaitezquen ondasun guztias betea, ala Naturalezazcoas²¹, nola graziascoas: Da gloria (esaten du S(a)n Anselmoc) estadu dichosobat, zeñetan arquizen diraden, edertasona, agilidadea, fortaleza, libertadea, osasona, deleitea, durazioa, sabiduria, amistadea, vnoia, honrra, podorea, seguridadea, eta gozoa: Da gloria (esaten du S(a)n Prosperoc) estadu dichosismobat, zeñetan dan ziertoa, seguridadea; da seguroa baquea; da pazificoa alegrie; da alegrea, eta dichosoa, eternidadea; da beticoa Bienabenturatuerten²² felicidadea: han arquizen dirade (esaten du Hugo Vitorinoc) ondasun abec guziac, gaiziz²³ baterere nasigabe; zergatic viziza, edo vizia, da eriozeric bague; gaztetasuna, zartasonic vague; osasona, eritasonic vague; descansua, trabajuric vague; gozoa tristezaric vague; vaquea discordieric vague; deleitazio, eta gustoa, disgustoric vague; Arguia illuntasunic vague; edertasona, mancharic vague; agilidadea, estorboric vague; fortaleza, debili-

13. Hola, eta ez «deseazen».

14. Parentesi marka hemen.

15. Hemen «pausuaquín», baina lau hitz aurrerago «pausaquin».

16. Hola, eta ez «onetaco».

17. Hola: «zeden», 'zer den' adierazteko.

18. Hola, eta ez espero den «iñorc».

19. Hola, eta ez «Theologaquin».

20. Baliteke «segurua» izatea: zaila da irakurtzen, ezabaturik dago eta.

21. «Naturalezazcoas», baina «graciascoas».

22. Hola: «Bienabenturatuerten».

23. Hola, eta ez «gaizac».

daderic vague; libertadea, persioric²⁴ vague; alegría congojeric vague; durazio²⁵, termioric vague; sabiduria, ignoranziaric vague; amistadea desazoic²⁶ vague; vnoia, embidiaric vague; honrra menos [3] menoscaboric vague; eta seguridadea, vildurri²⁷ vague.

Zer da gloria? da animen Patria, edo lequa, da fielen lur promisiocoa, christauen puerto seguridadecoa, Jangoicoen²⁸ semeen lequ seguroa, eche bendiciocoa, siglo guztieta erreinua, deleiteguztieta Paraisoa, lore eterno etaco, barazea, justo guzti coroa, eta gure deseо guzti fiña:

Zer da gloria? *Quid mihi est in caelo Esposa diuinac²⁹ galdezen zion, vere esposo diuinoari verari: indica mihi;* eta arrazobearquin galdezenzion (esaten du Origenes doctoac) zergatic ezta facill bestec³⁰ iñorc azertazea errespondizera: *nisi enim tu mihi anuntiaueris, incipio errabunda iactari:* Ea, nere Jauna, eta Maistrua, zer da gloria? eta errespondizendu aren Magestade diuinoac: da Thesorobat, edo ondasumbat bezala, eta Margarita preziosobat bezala, edo arri preziosobat bezala; vaña alaco margarita preziosa, eta thesoroa, ezen arquitu zuenac, saldu izanduzuen vere azienda guztia, erosteagatic: *inuenta una preciosa margarita, abiit, et vendidit o(mn)ia, quae habuit, et emit eam:*

Ó Nere Jangoicoa! Esaten du Cardenal Belarminoc: valdin icusten baguiñuque mercatari guztiz aberasbat, zeñec juntatu esquiero, guztiz cantidade andibat, vrretan, eta zillaretan³¹; eguiten luquela almoneda publicoa vere escritorioas, alaja guztias, eche guztias, hacienda guztias, aliqueta, lo eguiten duen ogazeraño; ezliguque guztioi causatuco admirazio andia? Zer izanen oteda au? ausentatutco oteda? mudatuco otedu vere echea? Galdezaiozute: Jauna zer nobidade da au? arquitu dut (esatendu) arri guztiz preziosobat, eta eguiten dut diru au guztia eroстecoz: Nor ezta admiratuco onetaz? Vada zer arri prezioso izan aldaiteque valioduena aimbeste mille ducat? Zeñ ezta asombratuko onetas? Vadaquizute zeiñ? Mercatari daquien ongi zer balio-duen, Margarita, edo arri precioso onec:

Icusiezazute Jesu (Chris)to gure Jauna, guztia odoles izerditan, preso, azetaturic abofeteaturic paraturic guruzebatean, almoneda eguiten bere vizitas, edo vizias, eta bere honrras: Nere Jauna [3at.] na, eta Jangoicoa zer egiten³² du? Zaute isillic (esaten du Cardenal Belarminoc) vada da mercatari Diuinoa ematen duena vere caudal guztia, margarita precioso gloriacoa gatic: *Christus est prudens, ille mercatorque dedit o(mn)ia sua, ut compararet preciosam margaritam:* Verezat (esatendu Santo Thomasec) erosи zuen, eta merexituzuen, bere gorpuzeco gloria; Gurezat gorpuzecoa, eta animacoa: Vada oraiñ admirabedi, eta espantabedi emen entendimenturic andiena, eta considerabeza zerdan zeruco gloria.

Zer izanenda (catholicoac) Margarita vra, eziñ erosи zeitequena, vaizin³³,

24. Hola, eta ez «presioric» edo.

25. Hola, eta ez «durazioa».

26. Hola, eta ez «desazooric».

27. Hola, eta ez «vildurric».

